

GAZTE NAIZ

POLIPASO, ERREKALDE...

Barkatu zaidak gazte, bainan artikulu honetan ez duk kirol giroko ezer arkituko...

Esan zidatek ik irakurtzeko, gauz auetaz idatzi behar dutala, kirolatza... Bainan arren, tituluagatik asi aizen ezkerro jarraitu zak... Egia al duk esan zitekena?... Nik ez diat sinesten, i kirolatza bakarrrik ardurazten aizela ez diat beinere sinestuko. Esan zaidak gazteok ez gaitukala utsak, nere prolemak ireak eta gazte guzienak ditukela... Horrela ez ba duk, deabruetara bialduko diat dena... Horrela ez ba duk... Zertarako idatzi euskeraz? Zertarako mintza euskeraz? Porru ta aizkoratzaz mintzatzeko bakarrrik balio badik. Zertarako lan egiten euskeraren alde?

Egiz, txorakeria ukel!

Gure prolemak minori batenak badituk obe diagu dena uztea denbora, galtzen hari gaituk.

Bainan bazekiak ez dala horrela, ik nik bezela kultura gosea daukak, prolemak aztertu ta soluzio bat emateko behartasuna.

Bazekiak baita ere zergatik aaztu zaien batzuei euskeraz hitzegitea, zergatik iruditzen zaien erderaz mintzatzeko dotoretu egiten dituela... Zergatik iruditzen zaien lotsagarria gure izkuntza zaharra erabiltzea... Euskeraz gai lotsakarriak erabiltzen direlako, betiko uskeriak, gaur eguneko gairik ikutu gabe... Gure antzoiatan beti Peru, Mariya herrio mozkorra ta inuentzia ateraz izanditugulako... Etzaik egia iruditzen?

Deadar argin zak nik bezela orduan, eta eztairi lertu harte esan bak gaur eguneko gazte bat aizela, Europako edozein gazte bezelakoa, ire prolemakin. Oju egin zak beiteen zorigaitzak mintu egiten aukela, bihotza garbia daukekanez gizonen gaiztakeriak ez ditukela konprenitzen...

Nik, gauz hauek esateko orri bat baiño geiago nahi diat, geiago behar diat, asteroko osoa, nobela, antzerki ahal diaten gazte lortu entzun nahi ez duanarengana ere iristeko. Eta lortu egingo diat ez baiduk euskaldun ona egiari lekua ukatzen diona, berak uskeriak esateko hartuaz. Edo nahiago duk jakitea Bizkaiko herri batean nor ezkondu dan François Mauriac nor dan jakitea baiño?

Ire prolema bakarra dirua irabaztea duk? Ire zaletasun bakarra kirola?

Horrela ba duk esan zaidak eta ez diat denbora geiago galduko, lo geiago... Horrela, bein betiko sinestuko diat nere lagunak eta nik ez diagula gazte izena merezi, anormalak gaitukela... Ik ordea oso ezkutuian ba dituk ere, kezak daukak, nahi ta nahiez kontzientzi bat, eta ez nauk ni izango lokartzen lagunduko diatena... Hortarako idatzen diat ta ez «base de lanzamientos» honen bidez euskal ambiente txar hontan murgitzeko.

SAIZARBITORIA

ASTETIK ASTERA

Zeruko Argia irakurtzen dutenen artean, gutxik ezagutzen dute, nik uste, frantsesez argitaratzen dan "Planète" sorta. Eta hau tamala da. Zeren-eta "Planète" horrekin gertatu dana, inportantzia haundikoa baita munduari buruz zerbaitxo pentsatzea maite duten guzientzat.

Zer da "Planète" hori? Aldizkari bat. Besterik ez. Baiñan ez da besteak bezelako aldizkari bat.

Itxuraz ere ba du zerbait berririk: santu asko, tamaña berrezia, erdi liburuxka erdi kasetata, zalantzarik gabe irakurtzeko gogoia piztuzten du.


Baiña itxuraz gain ere, ba du besterik. Eta hunek eman dio nere ustez hartu duen indar haundia. Artikuluek eman diote ospea eta zabalakundea; "Planète"k dalakoan argitaratzen diran irakurgaiak, oso oso bereziak diralako.

Zertaz ari da aldizkari hau? Huntaz ikasketa jakintsuak egin dira dagoeneko. Ba dago ere,

noski, argitaratzaileek berek fenomeno hortan ikasi nahi dutena. Alegia: "Planète" erruz saltzen da.

Zer da kakoa? Nik, egia esateko, gaingiroki, axalez bakarrik, ezagutzen dut "Planète". Baiña nabarmen agertu zait zertan dan kakoa: "Planète"k izkutukiak eta misteriozko gaiak aipatzen ditu. Eta, hau da inportanteena: jendeak gaur, arrazionalismo hotzaren mendearen omen, misterioa eta ezin-ulertuzkoa behar du.

Nun dira gaur jakintzaren mugak? Nun hasten da ez dakiguna? Hantxe duzu beraz "Planète", gizonaren jakintza ezagutarazi nahiean. Astronomiari buruz, esate baterako, "quasar" deriztaten galaxiak dira azken aurkikundeak; biologian, eman dezagun, ADN eta ARN nukleo-azidoak; aurrekondairan, Tiahuanaco'ko zibilizazioa; eta filosofian, eman dezagun, teihardismoa edo estrukuralismoa. Hauetxek dituzu, beraz, "Planète"k aipatuko



IDAZKITZA

Azkenengo Z. ARGIA'k bazterrak mogitu ditu. An esandakoak gaitik gure orri au irakurtzen dutenak ba dirala jakin al izan dogu.

Iruñako J. E'k beste gauza batzuen artean dio: "Zenbat buru aburu" irakurriaz ez dirudi Jose Luis'ek esaten duana beretzat artzeko asmorik duanik. Nik ere berak bezela esan det, esaten duan guziarekin konforme nagoela, bainan... Idazleak eskutilzen bidez bein esan bearrak agertu bear ba ditu zer dala ta berak, berari zuzenki egin dioten eskutilza bateri Z. ARGIA'ren bidez erantzun dio? "Base de lanzamiento" noentzat? Zer nai du jaun orrek Euskaltzaindiari aditzera eman euskal gramatikari buruz asko dakiala ta urengo titulo' zatiketa izaten danean, gogoan eukitzeko bere izena? Guri irakurlari, ze ajola zaigu berak ze eskutilza artzen dituan...

Jarrai, JARRA'larrok. Nere bottoa zuen aldekoa da, orri ori biziki maite baidut.

Milla esker geitzen dituzun itz on guziak gaitik. Asko poztu gaitu aldekoa ere ba ditugula ikustek, ta Z. ARGIA irixten gure orria irakurtzen dutenak ez ba dirala jakiteak. Ezingo da noski gure orri au gramatika eredu bezela erabili, leendik ere aitortua dugu.

-:--

Donostia'ko Xabier'eri esan bearrean gura, aleginduko gerala gure erantzuna ematen. Nere adiskide Saizarbitoriak zerbait agertuko duala orri beronetan esan dit.

Zuri ere ez zaizkizu atsegin izan aurretioko zembakian agertutako zenbait gauza, nola nai zuk esaten dituzun bezela ezin ditezke agertu. Gazteak gera bai, bainan gure gaztetasuna zenbait bidez baretu bearrean arkitzen gera. Berak beran iritzia agertu dute, guk, gurea agertu dezagun, burruka bizian ibili gabe ordea.

Idatzi bai, nai duzunean.

dituen gaiak. Esan beharrik ez: sexotasunari buruz "Planète" dalakoa ez du hurri.

Zer erakusten du hunek?

Gauza ezaguna da politikazko aldizkariak, esate baterako, banaika banaika ta piskanaka aitzen ari dirala munduan: alegia, jendeak ez bide du hortan siñisten. Zientziak aldizkari bat ateratzeko ere, makiña bat istillu igaro behar dira. Aldizkari sakonek, beraz, milla eragozpen gainditu behar izaten dituzte eutsi ahal izateko.

"Planète" k ez, dirudienez. "Planète" bereala nagusitu da. Zergatik?

Erantzuna, nere ustez, garbi dago: jendeak ez du ikasi nahi, amets egin nahi baizik. Egia bost axola zaigu; guk ipuin bat behar dugu, edo hobe absolutu-mordo bat, zientziakoz itxuraz jantzia. Eta egarri hori ematzera dator "Planète".

Gizonak ez du egia biltatu nahi, bihotza bete baizik.

Ez da gawko kontua!

GOIHENETXE

Zahartu egin gera

"Amazazpi urte, nora joan zinañten...? Bizitzaren lore, geroaren amets, bihotzaren garai berdiñikan gabe".

Raimon, kantante katalanaren abesti baten tituloak ekarri dizkit burura gaurko pentsamentu auk.

Ezagutzen nautenetako batenbatek erotu egin ote naizen galdetu lezake, orren gazterik zahartu egin gerala esanaz. Baiñan ez naiz erotu, ez. Zahartu egin gera, gutziz zahartu, joan zirañan amazazpi urte haien oroitapena buruan darabilkigun gazte denok. Zergatik, gaztesuna eta zartiaroa mugatzen ditun ataka seinalatzen asi ezkerro, ataka hori ilusioa dela esan berko genuke. Ilusio ta esperantzatan pertsona bizi den arterano, gazte da. Eta ilusio ta esperantza desegiten zaizkion egunean, doakabea, zahartu egiten da, gutziz zahartu, munduko inungo elixirek bizituko ez dun ahaljagetasun pixu baten menpe. Edo ta, bestela, atzeneko oportunitadearan aurrean topatzen da bat, eta atzeneko oportunitadea ongi aprobetxatzearan doako, fortuna guzira karta batera, bere bizitzaren suertea.


Eta gu atzeneko oportunitadearan aurrean gaude, aukeratu bearrean, arrixku ikaragarrian. Hori gutziz garbi sentitzen det nere izatearen premitian, eta premi horiek berak arkitzen ditut kideo gazte askoren bi-zitzetan.

Munduak bultzat gaitu aukeratu behar honetara. Gu bizi geran mundu nahastu eta urduri honek jarri gaitu atzeneko oportunitadearan aurrean, erabaki bearreko trantze gogorean.

Gazteki kulpa botatzen zaigu, baiño gazteak, eman diguten realidadea artu eta kontsideratetik dator gure desilusioa, gure protesta, eta protestatzeko gogoia joan zaigunean, gure zahartzaroa.

Ez gaitu bizitzak goxoki tratatu, eta gure ilusio ta ametsak egun batez eruririk gabe apurtu zizkigun. Ez dira gure denborak atsedan denborak, eta gure bizitzen historia ez da histori lasai eta uniforme izandu. Milla influentzik markatuta, oso goizik sentitutu genuen gure nor-tasunaren berezikunak argitzeko premia, eta bide zahala utzirik, estrata txigorretan barrena abiatur gura bein eta berriz, oinak nekatu eta belunak odolatan larrutu zaizkigun arterano.

Illunpeko ibiltariak, beraz. Eta ez diot inori kulparik botzen. Egi bat aitortu besterik ez det egiten. Baiña guri ere ez dezaigula inork kulparik bota, Illunpe honetan ez giñan gu sartu, sartu egin giñuzten. Eta zenbai-



tan, kolpeka ta ostikokaka sartu gañera. Eta argira ateratzeko alegiñean bi-z baldin bagera, ez da gutxi. Orrela, itsu bat bezela gabiltan laberinto honetan besoak astindu eta batean bat masallan jotzen baldin badugu, ez digu barkazorik eskatuko. Eta ostikoz norbait jotzen badugu, ez genioke barkazorik eskatu behar. Gure etsai ilezurri hoiek ez bai dute konprenitzen ostikoz jotze horrek alegiñ bat adierazten duala, fede bat. Edo ta gutxienez fedeganaiko borondate bat.

Poetak dion bezela, laugarren birtutea: "Fede esperantza eta karitatearen ondoren datorren laugarren birtutea, birtute holetan siñisteko borondatea".

Fedea, esperantza eta karitatea ia zeroo galdu genitum, amazazpi urte aiekin batera joan ziran. Borondatea bakarrrik gelditzen zaigu, nekuko lore; zeozertan siñistu edo zeezer maitatzeko borondatea, borondate pixar hori, atzeneko oportunitadea aprobexatu araziaz, gure blizta berritzen lagundu lezaigun borondate on hori.

Okasio hauetan zuzen aukeratzea ez da erreza, lagunak; ez da erreza zuzen aukeratzea. Baiñan amazazpi urte haiek joan egin ziran, eta gurebihotzean utzi zuten usneko nolabañ bete bearrean gaude, trixtura eta nostalgija esterill batek gure bizitza jan ez dezaten.

Amazazpi urte haiek inoiz alde egin ez bazuten, gaur salbatuak eongo giñan. Maitasun ametsak gure bihotza berotuko zuten, eta idealen indarrak gure espiritua eragingo.

Amabost urte guzinkalarik gure barrena maitemindu zuen xarman-taren irudi leguna...

Sentimendu eta afan haiek sinplegiak izango ziran, noski. Baiña gure bihotza berotzen zuten, eta berotasun hura zen sentimendu haieñ frukturik ederrena. Gaur bihotza beti hotz, eta nola berotu jakin ez... Jakituria konkistatu dugu, eta jakituri izugarri horrez sentimenduak le-gortu dizkigu.

Horra gure gaztetasunaren historia.

Eta arratsaldea gau bihurtzen den ordu dardari honetan, nostalgijak eraginda abeslariaren itzak datozkit burura.

"Amazazpi urte, nora joan zinañten?"

Illunaren lege

ametsik gabe bizi behar hau".

Ametsik gabe eta beti esna, eriotzak bakarrak etengo duen bijilia neketsu batean, Jainkoak dezala gutaz erruki.

J. LETE